

# HAMAR MINUTU

Marc Egea

Eusk: Ele txera

**ANDREA** ustekabeaz azaltzen da ahizparen etxean. Duela hamar urte ez dutela elkar ikusten. **ANDREA**k, bat-batean, iloba ezagutu nahi du.

**ANDREA:** Hamar minutu (*Nekatuta dagoela ikusten da*). Hamar minutu (*Daukan barruhaserrea ezkututzen ahalegintzen da*). Bederatzi ordu trenean, ordu eta erdi autokarrean, eta berrogeita bost minutu oinez –munduko zein leku madarikatura etorri haiz bizitzera!- eta esaten didan duela hamar minutu jarri dunala haurra lotan. Hamar minutu. Hau zorte txarra. Hamar minutugatik! Tira, agian esna zagonan ikustera igotzen ez haizela ikusten ez dinadanez -ez zaidan bururatzen nigatik esna dezanan eskatzea-, ba ezer ez, etorri naunan bezala joango naun –urbanizazio eder honetatik herri bakarti hartaraino zaudenan sei kilometroak ibiliko ditinat, hirira zaramanan autobusa hartuko dinat, eta han, egunsentian, nire etxera naramanan trenen bat ateratzen dunan ikusiko dinat. Ez kezkatu. Hamar minutu, hamar minutu ditun. Ulertzen dinat. (*Ahizpak ez du ezer esaten*)

Horrelakoa dun bizitza modernoa. Gogoratzen haiz txikiak gintunanean? Zer astiro zihoanan dena. Udan. Amak askaria ematen zigunan, eta ogitartekoa eskuan eramaten geninan arratsalde osoa, ezer esan gabe, gaua heldu arte. Eta ez zunan ezer gertatzen. Ez zunan ezer gertatu behar. Denbora soberan geninan. Ondo geundenan. Orain, ezer ez zagon ondo. Hamar minutuan bazirudin dena alda daitekenala.

Nork esan zinan larriena egun hartan, Marta? Nor hasi zunan, hi edo ni? Zer demontre esan geninan? Ez naun gogoratzen. Hire senarrak zerikusirik izan zinan? Nire lanak zerikusirik izan zinan? Arraioa, ez naun gogoratzen. Bakarrik hamar minutuko eztabaida izan zunan! Zer ditun hamar minutu hamar urtean! (*Barre egiten du*)

Atzo medikuarengana joan nindunan. Ninan buruko min hori... Ez ditun nire e-mailak irakurtzen, ezta. Atzo medikuarengana joan nindunan. Egun batzuk neramanan... Denboraldi bat zaramanat buruko minarekin. Proba batzuk egin zizkidatenan. Oso azkar eman zizkidatenan emaitzak. Ospitaletik ateratzean, badakin zer egin ninan? Badakin zer egin ninan lehenbizi? Tren bat hartu, eta autokar bat eta errepide amaigabe bati aurre egin. Nire iloba txikiaz gogoratu nindunan. Hori egin ninan. Eta pentsatu ninan behin bakarrik ikusi nahi ninala, joan baino lehen. Begira. A ze pena! Hamar minutugatik, Marta. Hamar minutu. (*Erlojua begiratzen du*) Autobusa galduko dinat. Banoa. Ez mugitu...

E(t)txera  
Munduko zabalduz

